

## GOBERNU IREKIA EAEn – LORPENAK ETA ERRONKAK

Lurralde-mugikortasuna egunerokoaren parte da Euskal Autonomia Erkidegoko edozein herritarrentzat (lurraldeak 7.200 km<sup>2</sup>-ko azalera du): batek Gasteizen lan egin dezake, Bilbon bizi, eta Donostiara joan familiari bisita egitera. Elkarrengandik hurbil bizi gara. **Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren bizitza eta parte-hartze politikoa eskumen- edo erakunde-mugez ulertzen ez duten espazioetan eta uneetan gertatzen dira.**

Inguruabar horrek etengabeko berrikuspen eta eraldaketa eskatzen digu. Eta **erakundearteko lankidetz**a, guretzat, **gobernu irekiaren ereduari eutsi behar dion oinarria** da. Gobernu mota horrek herritarren esperientzia, jakintza eta proposamenak jasotzen ditu ekintza publikoan.

la-ia “herrialdetxo” bat gara, **eskumen deszentralizatu ugari** dituen, ezin aproposagoa gobernu irekia gutxiago edo gehiago garatu duten beste hiri/eskualde/herrialde batzuetan aplikatu ahal izango diren **proposamenak saiatzeko**. Berrikuntza-laborategi bat, egitateen bitartez erakutsi ahal izateko **erakundearteko koordinazio irmoak baterako sorkuntzako prozesuak indartzen dituela** eta gobernu eta lurralde irekiagoen garapenerako oinarri sendoa ezartzen duela. Uste dugu **Euskal Autonomia Erkidegoko eredu**a OGP sarearen **interesekoa gerta daitekeela** ezaugarri horrexegatik, hain zuzen.

Gure postulaturako, **lehen helburutzat hartu dugu gobernu irekiko politikak hobeto koordinatzea**, hasi kudeaketa-maila hurbilenetatik, udaletatik alegia (Bilbo, Donostia, Gasteiz), eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen politika eta proiektuetaraino, tartean direla hiru foru-aldundiak, probintzia-mailan lan egiten dutenak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru lurraldeetan. Gure helburua da herritarrekin batera taxutzea **ekintza-plan bat, bi motatako konpromisoak jasoko dituen**a:

- **Konpromiso horizontalak**, gure ekintzen zeharkakotasuna xede dutenak. Konpromiso berak gobernu-maila beretarako, askotariko ñabardurak eta ikusmoldeak txertatuz esperimentaziorako, partekatutako balio batzuk abiapuntu izanik: inplikazioa eta lankidetz
- **Konpromiso bertikalak**, lehentasunak eta ereduak ezartzea xede dutenak. Hiru erakunde-mailek sakontasun handiko ekintza eta prozesu egituratuak adostu eta garatuko dituzte, gobernu irekiaren eredu erkidea finkatuko dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoan dagoeneko lanean ari gara gobernu irekiaren ildotik. Gure erakundeek gobernu irekiko planak eta kontuak emateko parte-hartzezko estrategiak garatu dituzte dagoeneko. Eta **konektaturik** dihardugu, hainbat saretan parte hartuz, besteak beste Eskualde Batuen Erakunde (ORU/FOGAR), United Cities and Local Governments sarean (UCLG) edo Parte-hartzezko Demokraziaren Nazioarteko Behatokia (OIDP).

Ez izan zalantzarik, **gobernu irekiaren aldeko gure apustu politikoa irmoa da**, eta gauzatu egiten dugu gure erakundeetan. Baditugu ia 90 pertsona zuzenean lan egiten gobernu irekiko unitateetan. Hazten jarraitzeko eta gobernu irekia bultzatuko duten inbertsio gehiago egiteko asmo sendoa ere badugu. Postulazio horren esparruan, **erakundearteko lantalde bat eratu dugu**, eta hurrengo urteetan garatu behar liratekeen **ekintzak eta konpromisoak detektatu ditu dagoeneko**. Lan horretan aurrera segitzeko, *Subnational Government Pilot Progameko* partaide izatea **mugarri bat izango litzateke gure ikaskuntza-prozesuan**.

Euskal Autonomia Erkidegoa dagoeneko bada lurralde irekia, baina irekiagoak izan nahi dugu.

### GARDENTASUNA ETA DATU IREKIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun-atariak osasuntsu daude. Nazioarteko Gardentasuna bezalako erreferentziako erakundeek ebaluatu dituzte, eta emaitza bikainak izan ditugu, gardentasunaren ranking-etan lehenengo tokiak lortu baititugu. (Maila instituzional guztiak 100etik 80 punturen gainera daude, eta haietako batzuek 100 puntu ere lortu dituzte).

Open Data Euskadi atariak datu irekien 4.126 multzo ditu, eta Europako datu irekien lehenengo atari ez britainiarra izan zen, 2010ean sortu zenean. Aurrekari horren ildotik, gaur egun baditugu datu irekien atariak hautagaitza hau osatzen duten erakunde gehienetan, eta gure datuak federatuta daude. EAEko hiru hiriburuek,

gainera, hiri adimentsuaren eredia sustatzen dute, kultura digitalaren estrategia bera erabiliz: datuak bildu, monitorizatu eta irekitzea kalitatezko hiri-zerbitzuak sortzeko eta aplikazio irekiak herritarrei begira garatzeko.

**Gardenagoak izateak berekin ekarriko du** datuen irekiera bat, zerbitzu publikoak hobetzen lagunduko diguna, gehiago landuz datuen lotura linked data-ren bitartez, eta, halaber, gure eredia egoki orientatzea, datuen irekierak ez diezaien administrazioen ahalbideei bakarrik erantzun, baizik eta herritarren eskariei eta negozio-aukerei ere bai.

## KONTUAK EMATEA

EAEko erakunde guztiok ditugu gobernu-programen eta geure aurrekontuen jarraipenerako aplikazioak eta politika publikoen ebaluaziorako sistemak. Gainera, behatokiaren sare sendoa dugu, informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa aztertzen eta ebaluatzen diharduena, bai informazio orokorra bai sektoreetako (baten bat saritu egin dute, hala nola [Etxebizitzaren Euskal Behatokia](#), NBEk saritua UNPSAetan, 2012an). Beraz, lurraldea aztertzeko eta informazioa lortzeko espazioen multzo oso garrantzitsua dugu gobernu-ekintza orientatzeko eta gobernu irekiaren estrategiak elikatzeko.

**Kontu-emate eraginkorragoari begira aurrera egiten jarraitzeko**, batera lan egin nahi dugu, Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek batera, informazio publikoa ulertzen eta modu kritikoan erabiltzen laguntzen duten bistaratze-tresnetan.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA SEKTORE PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA

Ordezkaritza politikoen eta herritarren arteko lankidetzaren egonkortzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu ekimen eta politika publikoak eztabaidatu, proposatu eta eratzeko garaian, horrela areagotu egiten baitira politikagintzaren dibertsitatea eta aniztasuna, eta erakundearen erabakien kalitate demokratikoa hobetzeko ekarpena egiten baita. Molde berri horiek ahalbidetuko digute gure ekintza politikoaren zikloa aberastea, gure barne-prozesuak berriro taxutuz eta gure politika publikoen diseinuan eta ezarpenean berrikuntzak eginez herritarren parte-hartzearen bitartez. Gure erakundeak urrats garrantzitsuak egiten ari dira bide horretan, informazioaren eskuragarritasuna hobetuz eta kontuak emateko guneak eta prozesuak sortuz (lineakoak nahiz lineaz kanpokoak).

Herritarren parte-hartzearen balioa aintzat hartzeko ibilbidea ere egin dugu, Espainian aitzindaria den araudi zorrotz baten bitartez (adibidez, foru-arauak [Arabako](#) eta [Gipuzkoako](#) lurraldeetan, eta [Euskadiko Toki Erakundearen buruzko Legea](#)). Horretarako tresnak hobetzearren, bultzatze-planak garatu ditugu, herritarren parte-hartzea gure erakundeetan zeharka txertatzen laguntzen digutenak. Herritarrekin baterako sorkuntzarako ekimen berritzaileagoak ere garatu ditugu, esaterako [Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria](#) (ORU FOGAREk eta 2016ko NBGPk saritua, zeinean 500dik gora pertsonak eta 150etik gora erakundeak parte hartu baitute), zuzeneko aplikazioa duena kudeaketa publikoaren zenbait esparru espezifikan (osasuna, hezkuntza, ingurumena, garapen ekonomikoa). Bada sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanaren beste adibide bat, oraingoan plangintza estrategikoa xede duena: "[Etorkizuna Eraikiz](#) – Etorkizuna Eraikiz" proiektua, Gipuzkoako lurraldearen etorkizuna definitzeko sortua, gobernantza berri baten oinarri esperimentalaren gainean (Gipuzkoa-Lab programa dela bide: lurraldearentzako proiektu estrategikoak edo esperimentalak diseinatuz eta abiarazteko lankidetzaren gunea).

Parte hartzeko prozesu ugari garatzeaz gainera, baditugu aholku emateko eta parte hartzeko organo formalak, gizarte zibilarekiko lankidetzarako etengabeko bide izan nahi dutenak. Hautagaitza hau osatzen duten erakundeetako bakoitzak horrelako zenbait gune eta organo ditu, eta horien xedea da hitza eta eragiteko ahalmena ematea gizarte zibilarri, baita parte-hartze politikorako eskubiderik aitortzen ez zaien kolektiboetarako ere, haurrei, besteak beste. Erakundearteko guneak eratu dira, halaber, toki-administrazioen prestakuntzarako, laguntza teknikorako eta herritarren parte-hartzea sustatzea helburu duten diru-laguntzetarako. Horrekin batera pauso garrantzitsuak ematen ari gara administrazio-hizkera sinplifikatzeko eta herritarren parte-hartzea errazteko, irakurketa errazaren irizpideak betetzen dituzten plataforma digitalen bitartez. Euskal Autonomia Erkidegoan [Irekia](#) plataforma daukagu 2010az geroztik. Espainiako hizkuntzetan sortutako gobernu irekiko lehenengo plataforma da. Irekia plataformak bideoen azpigitulu automatikoak ditu, eta irakurtzen laguntzeko webeko tresnak (UN Public Service Award 2015).

**Parte-hartze handiagoa eta hobe lortzearen**, erraz irakurtzeko eta hizkuntza sinplifikatzeko tresnak garatu nahi ditugu. Diseinu unibertsala giltzarri da hain hurbilekoak sentitzen ez gaituzten eta parte hartzeko ohiturarik ez duten pertsonak bilatzeko eta engaiatzeko.

Apustu egin dugu eredu **misto baterantz** jotzearen alde, non **elkarrekin bizi eta elkarren osagarri izango baitira parte-hartze formala eta parte-hartze informala** (azken hori sarritan herritarren ekimenez sortzen da, eta erkatzeko eta esperimintatzeko balio du). Bi ereduak uztartuz, bide anitzeko ikuspegia harturik, eta erakundea hurbilduz herritarrak ibiltzen eta gauzak gertatzen diren lekuetara (eta ez alderantziz), agian lortuko dugu gure benetako helburua: pertsona guztiek parte hartu ahal izatea, hala nahi badute, balio publikoaren sorkuntzan.

**Eta horrek berekin ekarriko du** gure organoen jardura mapatu eta aztertzea, haiek arrazionalizatzeko eta, ondoren, gardentasun eta elkartasun handiagoz lan egiteko tresnak emateko.

## **GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA BERRIKUNTZA**

Herritarrekin harreman eta interakzio bizkorrago eta eraginkorragoak izateko, ezinbestekoa dugu EAEko administrazioen barruko zein kanpoko prozedurak digitalizatzeko prozesua azkartzea. **Herritarren Karpeta** garatzen ari gara, edozein herritarrek bistaratu eta atzitu ahal izan ditzan EAEko administrazioekin edo Espainiako Estatuarekin irekiak dituen prozedura guztiak. Digitalagoak izateak aukera ematen digu harreman hobeak izateko, herritarrei zerbitzu integrala ematearren lankidetzan aritzeko eta gure barruko prozesuetan ere gardenak izateko. EAEko administrazio publiko guztiek herritarren arreta bateratuko zerbitzua ezarrita daukate edo ezartzeko prozesuan dihardute (pertsonak pertsona ematen dieten zerbitzua da, horizontala eta integrala, bide anitzekoa eta proaktiboa)

**Eta nahi dugu** zerbitzu integratua eta erakundeartekoa izan dadin, sarrerako ate hurbil eta zabala izan dadin herritar guztientzat.

## **OSOTASUNA**

Azkenik, ekintza publikoa eta erakundeen zein erakundeetako arduradun publikoen ospea lehengoratu eta errebalorizatu beharraz jabetuta daude. Osotasun instituzionalerako mekanismoak eta tresnak ezarri ditugu, kargu publikodunaren kontzeptua sakontzen dutenak eta guztien interesa lehenesteko kontrol- eta berme-sistema bat dakartenak (adibidez, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen Legearen bitartez). Gainera, EAEko administrazio guztiok kargu publikodunen jokaera-kode etikoak ezarri ditugu, eta baditugu haien kontrolerako organoak ere, barruko eta kanpoko eragileek osatutako etika publikoko batzordeak, hain zuzen. Zenbait kasutan, osotasun-sistemari enplegu publikorako, kontratuetarako eta diru-laguntzetarako kodeak gehitu zaizkio, kanpoko dimentsio bat erantsiz osotasun instituzionalari,

**Etengabe eraikitzen ari den prozesu bat garatu nahi dugu**, herritarrentzako bermerako eta arriskuen prebentziorako mekanismoen bidez. Prozesu horretan gehiago eskatzen digun ekintza oro aberasgarri izango da.

## **ETA AURRERA BEGIRA...**

Gure lorpenak eta erronkak oinarri, zenbait **ekimen berritzaile** identifikatu ditugu, gobernu irekiak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen ahalbideen erakusle gisa:

- Open Big-Data Euskadi, gure open data eboluzionaraztea erakundearteko big data baterantz
- “Open Eskola”, irekierarako eta herritarrak inplikatzeko gune fisikoak sustatzea. Horiek saiakuntza-laborategi bihurtzeko beharizanak arakatzea.
- Jardun publikoaren esparruak eta prozesuak mapatzea ustelkeria-arriskua gutxitzeko.
- Gobernantza esperimentaleko jardunbideak beste erakunde batzuei doitztea, herritarren parte-hartzea uztartuz eta lotuz plangintza estrategiko eta etorkizun-eraikuntza partekatuekin.

Aldez aurreko diagnostiko-lan horri guztiari esker, zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat gobernu irekiko ekintza-plan handinahia taxutu eta ezarri ahal izango dugu herritar talde eragilearekin batera.